



ARESOKO UDALA

# ALKATEAREN BANDOA

## HEZIKETARAKO ETA HEZKUNTZARAKO LAGUNTZAK IKASLEENTZAT

Aresoko Udalak ikasleei diru-laguntza ematea erabaki du, heziketa eta hezkuntza gastuak ordaintzeko. Laguntzak honako ezaugarriak izanen ditu:

Laguntzaren iraunaldia: 2017 urtean burututakoak.

Laguntzaren zenbatekoa: egiaztatzen den gastuaren %50; gehienez ere 100 euro urteko eta ikasleko.

Laguntza jasotzeko baldintzak:

- .- 16 urte bitarteko gazte eta haurrak izatea.
- .- Areson erroldatuak, gutxienez urtebeteko antzintasunarekin.
- .- Heziketan edo hezkuntzan egindako gastua egiaztatu behar da fakturen, ordainagiriaren edo antzeko agirien bidez.
- .- Kirol jarduerari dagokienez, ikastaro ez lehiakorrek hartuko dira kontutan, adibidez: igeriketa ikastaroak, ...

Bete beharrekoak:

Udal Idazkaritzan idatzizko eskaera egin behar da.  
Epea: 2018ko ekainaren 26tik uztailaren 10era arte.

Areson, 2018ko ekainaren 26an.



Alkateordea

M<sup>a</sup> Asuncion Arratibel Onsalo